

Izenpe txartela erabiltzen irakatsiko dute Anoetan

Maiatzan, ekainean eta uztailan hainbat ikastaro antolatu dituzte

Anoeta. Anoetako Udalak Izenpe txartel elektroknoa erabiltzen ikasteko ikastaroak antolatu ditu Kzgunean.

Ikastaro hauek egiteko ezinbestekoa izango da txartela edukitzea. Eskuratu ahal izateko udaletxera, udal liburutegira (liburutegiko bazkideen kasuan) edo Abraham Olano kiroldegira (bazkideak) jo daiteke eta doakoa izango da. Ikastaroetan parte hartzen dutenei irakurle digitala oparituko zaie. Ordubeteko ikastaroak antolatu dituzte eta maiatzean, ekainean eta uztailan eskainiko dira. Maiatzaren 24an 18.00etatik 19.00etara eta 19.30etik 20.30era izango dira eskolak. Ekainaren 21ean, aldiz, 11.00etatik 12.00etara. Uztailan bi egunetan eskainiko dira ikastaroak. Uztailaren 5ean 18.00etatik 19.00etara eta 19.00etatik 20.00etara. Uztailaren 19an, berriz, 16.00etatik 17.00etara 17.00etatik 18.00etara.

Udaletxera, Foru Aldundira edota Eusko Jaurlaritzara zuzenean joan gabe, Internet bitartez Udalarekin zerikusia duten edozein kon-tsulta egiteko aukera ematen du Izenpe txartelak. >m.s.s.